

LESBIANEN BANDERAK



1999. Sean Campbell. Labrys. Ez inklusiboa*.

AEBtako diseinatzaile grafikoak beste hainbat banderekin batera sortu zuen, kolektiboaren Palm Springs (Los Angeles) aldizkari batean argitaratzeko. Nazien Alemaniako kontzentrazio-esparruetan presoak sailkatzeko sisteman, hiruki beltz alderantzikatua, besteak beste, lesbianak identifikatzeko erabili zen. Aizkora bikoitza edo labrys delakoa, antzinako Greziako mitologian agertzen ziren andrazko batzuekin erlazionatzen da, bereziki Amazonas pertsonaiekin. Lesbianek azken hamarkadetan erabilitako sinboloa delarik.



2010. Natalie McCray. Musua ezpainenetako margoarekin. Ez inklusiboa*.

"This lesbian life" blogaren idazleak bere ametsetako bandera izateko sortu zuen. Zertan inspiratu zen ez aipatu arren, 2008. urteko "Cougar Pride" bandera plagiatu zuela egotzi zioten. Fausto Fernós podcaster eta drag queenak, andrazkoen sexualitatearekiko jendarteak egiten duen sexismo eta adinkeria salatzeak sortu zuen. Baina ez zuen lesbianei zuzendutako bandera egin nahi izan. Natalie McCrayren bandera aurrerago eraldatu egin zen, ezpainetako margodun musuaren silueta kenduz, ez baitzuen lesbiana guztiak barne hartzen.



2018. Lydia eta Maya Kern. Banderak safikoa.

Lydia diseinatzaile kanadiar indigenak eta Maya Kern, bandera inklusiboa izateko sortu zuten. Inspirazioa Mitileneko edo Lesbosen Saforen 94. ataleko honakoetan izan zuen: "nitaz ahazten bazara, Afroditari egin genizkion eskaintzetan eta partekatu genuen xarman pentsatu, tiara bioleta [bioleta] guztietan, txirikordatutako lore-begiak [larrosa], aneta [berdea] eta azafraria [horia], zure lepo gaztearen inguruan biratuak". Era berean, autoreak honako loturak ezarri zituen, kolore bakoitza balio batekin: bioleta = maitasun safikoa, larrosa = hauskortasuna, horia = indargunea eta berdea = sendaketa.



2018. Emily Gwen. 7 kolore.

Emily Gwen australiarrek diseinatutakoa, goitik beherako koloreek honako esanahia dutelarik: generoen estandarrekin desadostasuna, independentzia, komunitatea, feminitatearekin erlazio bakarrak eta pertsonalak, lasaitasuna + bakea, maitasuna + sexua eta azkenik, feminitatea. 5 lerrotako sinplifikatutako bandera ere existitzen da, produkzioa errezagatzea izateko.



Ezezaguna. Ostadarra Artizar bikoitzarekin. Ez inklusiboa*.

Bere sorrera ez dago argi. 1979. urteko ostadar bandera eta Artizar sinbolo astronomiko bikoitzua batuta agertzen dira. Sinbolo bikoitz horrek ez du lesbiana guztiak barne hartzen, pertsona ez bitarrak kontuan ez hartzeagatik.

*** Hurrengo banderak ez dira lesbianen osotasunaren ordezkagarriak:**

Labrys sinboloa eta 1999. urteko bandera, trans baztertzaleak diren andrazkoen taldeengatik erabili dira.

Fausto Fernós-en bandera ez zen lesbianentzat sortua izan eta Natalie McCrayren bandera ez da inklusiboa bertan agertzen den ezpainetako margoarekin identifikatzen ez direnak ez dituelako barne hartzen.

Artizar sinbolo bikoitzako bandera ez ditu lesbiana ez bitarrak barne hartzen.